



# EUSKAL HERRIA SOZIALISTA



99 zenbakia  
euro 1  
laguntzarekin: 2 euro

**Ezker  
Iraultzailearen  
aldizkaria**

# ISRAELGO ERREGIMEN NAZIA MUNDUAREN AURKA



## Gaza, Zisjordania, Libano

# ISRAELGO ERREGIMEN NAZIAK MUNDUA MEHATXATZEN DU

Artikulu hau idazteko unean, areagotu egin dira Libanoren inbasio sionista saihesteko negoziatioak, AEB eta Frantzia buru direla. Ekialde Hurbilean Hezbolaren aurkako gerra batek eta Iran gerran sartzeko aukerak zalantza asko sortzen ditu Mendebaldeko botere gune inperialistetan. Eta, hala eta guztiz ere, Netanyahu-ren erregimena inpunitate osoarekin sentitzen da eta makineria militarra prestatzen ari da. Sionistak Hitler bezala jokatzeko ari dira, buruzagi naziak Londres eta Paris-ko baretze politikei barre egiten zienean.

Ezinezkoa da aurreikustea Tel Aviven agintzen duten eskuin muturreko mesianikoen politikek zein ondorio izan ditzaizketen Ekialde Hurbilarentzat eta munduarentzat. Ministro sionistek publikoki adierazi dutenaren arabera, estatu sionista indarrak metatzen ari da mugan, Libano airetik suntsitu ondoren, lurreko inbasio bat hasteko eta Hezbola Litani ibaiaren beste aldera jaurtitzeko. Libano bigarren Gaza bihurtu nahi dute.

Israel eta Netanyahu nazien Alemaniarekin eta Hitlerrekin alderatzea ez da txorakeria. Egun gutxitan, Libano hegoaldeko bonbardaketa sionistek 558 pertsona hil dituzte, horietatik 50 haurrak, eta 2.000 inguru zauritu uzi dituzte. 1990ean gerra zibila amaitu zenetik eraso batek eragin duen hildakoen kopururik handiena da. Izua hedatu nahi dute, Gazan be-

zala, biztanleria zibila jo ta su sarraskituz eta berehala ihes egitera behartuz. Hanka egin duten pertsonak dagoeneko milioi erdi pertsona dira, 5,5 milioi biztanle baino ez dituen herrialde batean.

Astebete lehenago, sionistek kaosa zabaldu zuten Libanon eskala handiko eraso terroristekin, walki-talkiak, telefonoak eta bestelako gailuak leherraraziz. 5.000 bonba baino gehiago 50 hildako eta 3.000 zauritu baino gehiago eragin zituzten, gehienak mutilazio izugarriekin! Eraso terroristak masiboak izan ziren baina, jakina, mendebaldeko "demokraziek" ez dituzte kondenatu.

Bitartean, Gazako genozidioak ez du su-etenik ematen. Dagoeneko kanpaina militar gupidagabeak 42.000 inguru hil ditu, eta The Lanceten arabera, kopuru hori orotara 180.000koa izan daiteke. Horri guztiari ehunka mila zauritu eta gaixo gehitu behar zaizkio. Baita lurraldea erabat birrindurik uztea ere, bonba atomikoak Hiroshiman utzitako irudiak gogoraraziz.

Gazako genozidioa Zisjordaniara ere zabaldu da, eta kolonoen eta Israelgo armadaren erasoaldi faxistak erabateko izua eragin du bertan: iaiztik 700 palestinar inguru hil dituzte, horietatik 164 haurrak; soldadu israeldarren irudiek agerian uzten dute Netanyahu eta haren gobernu nazi-sionista zein urrun iritsi diren.

### AEBk eta EBk Netanyahu-ren gerrak armatu eta finantzatzeko dituzte

Alabaina, erregimen sionistak hori guztia egin badezake, eta mundua aurreikusi ezin diren ondorioak dituen gerra batetara bultzatzen badezake, hori Biden, Kamala Harris eta Etxe Zuriko buru diren demokraten laguntza militar, ekonomiko eta diplomatiko sutsuari esker da. Bai, demokratena! Trumpen aurkako kanpaina egiten duten eta ultrasukuinaren arriskuak hitz egiten duten berberak dira munduko gobernu faxistenaren eta supremazistenaren babesleak.

Dudarik ez uzteko, Washingtonek erabaki berri du beste hegazkin ontzi bat eta hainbat gerra fragata bidaliko dituela Libanoko eta Irango kostaldera, eta tropa gehiago Ekialde Hurbilera. Argi utzi diote Netanyahu-ri, eginak egin arren, babesa ematen jarraituko diotela. Bidenek berak, NBERen Batzar Nagusian, adar jotzea zidudien hitzaldi batean, Hamasi eta Hezbolari bota zien eskaladaren errua berriro. Hitlerrek ere, bere garaian, txekiarrei edo poloniarrei eta bereziki juduei leporatu zien euren herrialdeen inbasioaren eta garbiketa etnikoaren errudunak izatea.

Azaldu dugun bezala, Washingtonen laguntza finantzario eta militarrik gabe, estatu sionistak ezingo luke jarraitu Gazako genozidioare-

kin, eta, jakina, ezingo luke planteatu ere egin Libanoko gatazka.

Israelgo ekonomia lur jota dago. 60.000 enpresek porrot egin dute urriaren 7tik, eta sektore osoak geldituta daude, hala nola eraikuntza, landa edo turismoa. Horren arrazoia, besteak beste, erreserbisten erreklutamendua izan da, mobilizaturako militarren % 71 hartze baitu. Defizit publikoa ia % 9koa da, eta gastu militarren hazkunde bizkorra elikatzen du. Israelgo Bankuak kalkulatu duenez, gerrak 67.000 milioi dolar jango ditu 2025era arte. Alabaina, AEBk dagoeneko onartu du Israeli 30.000 milioi euroko laguntza gehigarria ematea.

Gu despistatzen saiatzen dira, sinetsaraziz AEB txunditurik dagoela Israelen ekintzekin. Zehatz mehatz ezagutzen dituzte planak, eta sionistek ez dute pausorik ematen Etxe Zuriaren oniritzia izan gabe, azken horiek oso konbentziturik egon ez arren. Une honetan, Etxe Zuriak ez du gerraterik nahi Libanon, egia da, baina behin eta berriro lagunduko diote estatu sionistari. Netanyahu-ri eta bere ministro faxistek ondo dakite hori!

AEBren gainbeherak eta Txinaren aurrean izan dituen galerek fidagarritasuna kentzen diote bere aliatu arabiar ohien aurrean, hala nola Turkia, Saudi Arabia edo Egipto. Horregatik ezin dio Israeli kontra egin, nahiz eta horrek, aldi berean, Ekialde Hurbilean eta munduan gero eta bakar-tuago egotea ekarri.





Eta gauza bera esan dezakegu Europari buruz eta Borrell bezalako kanpo politikaren bozeramaileei buruz. Aiene asko gatazkaren biktimengatik edo Libanoko inbasioaren arriskuaren aurrean, baina ez dute neurri bakar bat ere hartzen, ezta zigor bakar bat ere, estatu sionistaren aurka. Errusiarekin bai, eta Israelekin ez? A ze Hipokresia!

Europako Batasunak Israelen lehen bazkide komertziala izaten jarraitzen du, eta bere horretan mantentzen du EB-Israel elkartzeko hitzarmena. Arma saltzen eta hornitzen jarraitzen du, eta AEBekin batera, Netanyahu beharrezko baliabide guztiak bermatzen dizkio Gazan sarraskia egiteko eta gerra Zisjordaniara eta Libanora zabaltzeko. Borrellen aieneak eta Pedro Sanchezen diskurtsoak antzeppen hutsa dira eta Sumarrek eta IUREkin batera osatzen duten Espainiako Gobernuak parte hartze zuzena du egoera honetan.

### Hirugarren Reich sionista

Estatu sionista muga jasanezinetara iristen ari da. Duela urtebete naziei buruzko film bateko eszenatokia emango zukeena, orain errealitate bihurtu da. Gazako suntsiketak eta genozidioak ez du parekorik XXI. mendean, eta gerrak Ekialde Hurbila hartzeko mehatxua gero eta posibleagoa da.

Netanyahuren gobernuak eta bere aliatu faxista ultraortodoxoek, egunez egun 14. katetik (Israelgo telebista kate ikusiena) palestinarren eta orain libanoarren garbiketa etnikoa defendatzen ari dira, eta arma atomikoen erabilera justifikatzera ere iritsi dira. Baina asmo osoz esandako ankerkeria eta astakeria horietako bakar batek ere ez die murriztu jasotzen duten babesa. Aitzitik, Israelgo gizartean duten boterea indartzen eta sendotzen ari dira.

Oposizioak, duela urtebete Netanyahu bere erreforma judizial autoritarioagatik larri estutu zuen arren, orain ez dio deriba horri aurre egiten. Gazako genozidioa eta Zisjordaniako palestinarren aurkako sarraskiak gaitzesteari uko egin dio, eta bahituak bueltan ekartzeko su-etena eskatzeko protestak murriztu ditu.

Orain, gainera, oposizio horren zati bat ari da sutsuen eskatzen Libanon esku hartze militarra hastea. Benny Gantz buruzagi nagusietako batek, maiatzera arte Netanyahuarekin Gobernu partekatzen zuenak, duela aste batzuetatik esan du “iparraldean ekiteko garaia” iritsi dela, eta Netanyahu kritikatu du bere ustezko pasibotasunagatik: “Egia esan, uste dut berandu gabiltzala”. Eta gauza bera gertatzen da Yair Lapidekin. Netanyahuaren Gobernuan sartzeari uko egin zion, baina orain Libanoko biztanleria zibilaren aurkako bonbardaketa basatiei ongiatorria eman die, “unea iritsi dela” adieraziz. Oposizio horrekin, nola ez da bada nagusituko ultraeskuindar mesianikoa?

Yoav Gallant Defentsa ministroa ustez Gobernuaren alde moderatua zen eta Netanyahu eta bere lagun faxistek haren postua zalantzan jarri izan dute. Orain bera da eskalada militarren defendatzaile sutsuenetako bat. Israelen ezarri den larrialdi egoerak armadari eskumena eman dionean herritarren oinarritzko eskubideak bertan behera uzteko eta bilerak debekatzeko, zera esan du Yoav Gallantek argi eta garbi: “publikoak jarrera, diziplina eta erabateko obedientzia erakutsi beharko ditu”.

Deriba totalitario hori gero eta nabarmenagoa da Israelen barruan, eta hamarkadak dira palestinarrek pairatzen dutela Gazan eta Zisjordanian. Argi dago Netanyahu eta bere kideek ez dutela inolako erreforma judizialik behar eskubide demokratikoekin amaitzeko eta estatu sionista diktadura teokratiko bihurtzeko. Bide horretatik, supremazismo sionistari eta gerrazalekeria ankerrenari erabat amore emanik dagoen oposizioarekin, ia ezinezkoa izango da Netanyahu eta bere gobernuak geldiaraztea.

Sionismo ultraeskuindarraren aurkako oposizio irmoa altxatzeak, lehenik eta behin eskatzen du Israelgo estatu kolonialista kapitalistari aurre egitea, Gazako eta Zisjordaniako palestinarrei eskubide oro ukatzen baitie. Halaber, herri palestinarren erabateko askapenaren alde kontsekuenteki borrokatzea eskatzen du.

### Elkartasun internazionalistak eta iraultzak bakarrik geldiaraziko dute gerra!

Nahiz eta AEB, EB eta nazioarteko komunitatea konplizitate kriminal batekin jokatzeko ari diren, nahiz eta su etena eskatzen duten beste potentzia inperialista batzuk uko egiten dioten estatu sionistarekin harremanak hausteari, hala nola Errusiak edo Txinak, egia esan, genozidioaren aurkako masen borroka indartzen ari da mundu osoan.

Milioika lagunek bete ditugu kaleak Palestinako herriari elkartasuna adierazteko, eta orain berriz egingo dugu gerraren aurka eta Libanoko gure anai-arrebei babesa emateko. Jordanian, Marokon, Egipton, Turkian... Israelekin negoziatu handiak egiten dituzten gobernu ustelen herrialde horietan mobilizazio ikaragarriak ikusi ditugu. Haatik, esan izan dugun bezala, basakeria horrekin amaitzeko ezinbestekoa izango da udaberri arabiar berri bat, oraingo gobernu hauen eta sistema kapitalistaren aurka joaz, iraultza sozialista gisa.

Duela gutxi, Liga Arabiarrek Borrelli eskatzen zion EBk ausardiaz joka zeza la Gazako genozidioa geldiarazteko. Baina... eta Liga Arabiarrek? Zergatik ez dute petrolio eta gas merkataritzan 1973an bezala boikota ezartzen? Non dago elkartasun arabiarra deiturikoa? Kaleetan bai noski. Baina ez gobernuetan, interes bakarra baitute: instituzio sionistarekin eta bazkide amerikar eta europarrekin dituzten negozio oparoak mantentzea.

Hilabete hauetan AEBn masa mugimendu indartsua ikusi dugu Palestinaren kausaren alde. Demokratentzat amesgaitz bihurtu da, mugimenduak irmo salatu baititu genozidioaren erantzule gisa. Zazpi sindikatu handi Israelekin harremanak erabat etetea eskatu diote Bideni. Hori ez da huskeria eta presidentetza galtzeko faktore bat bihur dakieke.

Gauza bera gertatzen da kontinente zaharrean. Britainia Handian, lehen ministro laborista berriak sarraskiaren aldeko politikarekin jarraitzen du, baina ia milioi bat personak Londresko kaleak hartu berri di-

tuzte. Eta protestak etengabe gertatzen dira Frantzian, Estatu espainiarrean, Belgikan, Suedian eta baita Alemanian ere, gobernu sozialdemokrataren errepresio bortitzari aurre eginez. Nabarmendu behar da Alemaniako gobernuak bilera publikoak debekatu eta desegin dituela, Samidoun bezalako elkartasuneko erakunde palestinarrik ilegalizatu dituela, eta orain haurrak atxilotzen ere ari dela, sionisten erduari jarraiki, bandera palestinar bat eramateagatik. Horra hor munduari lezioak eman nahi dizkion Europa demokratikoa.

Libanoko basakeria sionistak, eta orain inbasio militar batek, langile klasearen, gazterien eta zapalduen arteko haserrea areagotu besterik ez dute egingo. Gorakada horren aurrean, eta Ekialde Hurbil osoko gerra baten arrisku larriaren aurrean, ezin dugu inolako konfiantzarik jarri Mendebaldeko gobernu kriminalen jardun diplomatikoan, ez NBen edo nazioarteko komunitatean, ezta Txina edo Errusia bezalako potentzietan ere; izan ere, nahiz eta estatu sionista salatu komunikatu publikoetan, pasibotasun izugarria baitute, Netanyahu lasai egiten uzten diona.

Masen mobilizazioa gogortu eta zabaldu behar da, boikot ekintzak areagotuz eta ekoizpena geldiaraziko duten lanuzteak eta greba orokorrak bultzatuz. Eta hori egin behar da seinalatuz, lehenik eta behin, geure gobernuak eta basakeria geroz eta krudelagora garamatzen sistema kapitalista bera. Gerra gerrari eta gerra sarraskia sostengatzen duten gure gobernuak!

Berriro ere, mundu osoko klase agintariak, Israel, AEB eta EB buru direla, 1914koa edo 1939koa bezalako eszenatoki batera garamatzen. Militarismoaren eta inperialismoaren aurrean, genozidio sionistaren aurka, internazionalismo proletarioaren borroka oihua inoiz baino beharrezkoagoa da: sozialismoa edo basakeria!

**Ibaitik itsasora,  
Palestinak irabaziko du!  
Bonbarrik ez, soldadurik ez,  
eurorik ez gerra inperialistarako  
eta genozidio sionistarako  
Batu zaitetz Ezker Iraultzailera**



# EH Bildu eta Pradalesen Jaurlaritza

## Herri akordioak ala klase borroka?

EDITORIALA

“Herri txikia gara, nazio txikia, arrisku handiak dituena, eta hauteskunde esparru bazueta, gure ustez, herri gisa jokatu beharko genuke. [...] Zer zentzu du EAJk Europako hauteskundeetan Coalicion Canariarekin batera parte hartzea, zeinak Amnistia Legearen aurka bozkatu duen, herrialdeko zerrenda bat egin beharrean? Aukera hori defendatzen dugu, gure maximo delako lehenengo herrialdea eta gero alderdia”. Hitz horiekin, Otegik etorkizunean EAJrekin, patronalaren alderdiarekin, Europako hauteskundeetarako zerrenda bateratuak eratzeko aukera aipatu zuen.

Uda hasieran EAJ eta PSE alderdiek Jaurlaritza berria eratzeari ekin zioten eta lehendakari izendatu zuten Imanol Pradales, “obren diputatua” ezizenez ezaguna, eraikuntzako enpresaburu lagunekin egindako kontratuak direla eta. Alabaina, horren ondotik badirudi EH Bildu prest agertu dela EAJren magalera hurbiltzeko eta Jaurlaritzan alderdi arduratsu eta fidagarri gisa agertzeko.

Hori al da, ordea, langileok eta gazteok pairatzen dugun egoerari aurre egiteko bidea? Hori al da etxebizitzaren eta lanprekarietatearen arazoarekin amaitzeko bidea, errepresioa edo Osakidetza eta hezkuntza publikoaren suntsitzea geldiarazteko bidea? Halako jarrerak hurbilduko al gaitu independentziara? Kataluniako herriaren altxamenduaren aurka egin zuen EAJ beraren eskutik joanda? Gure ustez ez. Aitzitik, hartu beharreko bidea guztiz kontrakoa da.

**Inmanol Pradalesen Jaurlaritza: patronalaren, sionismoaren eta errepresioaren alde, are gehiago**

EAJ-PSE gobernu berria aurreko kontu berarekin dator, baina okerrago. Pradalesek inbestiduran demagogikoki iragarri zuen “Osakidetza harrotasuna itzuliko” ziola “talka-plan” batekin. Errealitatea, ordea, bestelakoa da. Privatizazioaren truke irabaziak lortzen dituzten enpresak eta aholkularitzak gero eta gehiago dira. Eta gauza bera esan daiteke beste zerbi-

tzu publikoei buruz ere, hala nola egoitzei buruz, enpresa lagunei esku betez ematen zaizkien negozio bihurtu baitituzte. EAEn dauden 434 egoitzetatik 40 bakarrik dira kudeaketa publikokoak. Hortik datoz azken urteotan bi sektoreetan ikusi ditugun greba eta mobilizazio indartsuak.

Baina demagogia horrek, zoritxarrez, nolabaiteko eragina izan dezake, EH Bilduko buru Peio Otxandianok Osakidetza-aren suntsiketaren arduradun den EAJrekin osasunaren aldeko mahai bat eratzeari onartzen duenean. “Doinua gustatzen zaigu, ea letrak zer dioen” aipatu zuen. ELAk egin duen bezala, kanpaina hau salatu eta mobilizazioak bultzatu beharrean, osasun publikoa etengabe suntsitzen ari den Jaurlaritza arnasa ematen diote.

Argi dago Jaurlaritza berriaren aurpegia zein den: patronalari lotutako sailburuak, irrikitan daudenak zerbitzu publikoak suntsituz edo etxebizitzarekin espkulatuz negozio mardulak bultzatzeko eta mobilizazioak are gogorrago zapaltzeko.

Hori da Mikel Jauregi Letemendiaren kasua, Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuneko sailburu izango dena. Jauregi, orain arte, zuzendari gisa aritu da British Petroleum-en Espainiako Estatuko Centrica Plc. filialean. Enpresa hori “energia berdeko” inbertsioengatik iruzurra egitea eta Trumpekin lotutako think tank kontserbadore eta negazionista bat finantzatzea egotzi diote. Elementu hori izango da “jasangarritasunaren” arduradun.

Baina gobernu horren benetako aurpegiaren adibiderik onena —eta EH Bildu horrekin itxaropentsu agertu da— Ertzaintza eta errepresioaren gogortzean ikus daiteke. Delituen indizeak oso baxuak izan arren, Jaurlaritza berriak eta Ertzaintzak beldur kanpaina bat bultzatzeari ekin diote, eskuin muturraren estiloan, polizia eta errepresio gehiago justifikatzeko, batez ere etorkinen aurka zuzendua.

Argi ikusi da hori udan Bilboko poliziak manteneren aurka egindako jazarpen basatian. Horrek ez du eragotzi EH Bilduk bat egin izana EAJren Bilboko Segurtasun Plan berrian, poliziaren presentzia eta bideozaintza areagotzea aurreikusten dituen plan batean. Eta gainera hori jus-

tifikatu dute “irizpide zientifikoak” jarraituko dituela eta “horrek gehiago hurbiltzen gaituela polizia komunitarioaren eredu batera” esanaz.

Ertzaintzaren barruko elkarte eta sindikatu ultraeskuindarrak, Estatuko gainerako lurraldeetan bezala, politika eta diskurtso arrazistak eta kriminalizazioa bultzatzen ari dira. Aldi berean, Eusko Jaurlaritza berriak segurtasun enpresa sionistekin kontratuak errazten jarraituko du, errepresioa hobetzeko eta, bide batez, EHko armamentu industria ahaltsuarentzat kontratu mamitsuak bermatzeko, genozidio sionistak Palestinan aurrera jarraitu dezan.

Izan ere, EH Bildu bera ere errepresioaren biktima da. Ernaiko 133 kideri 290.500 euroko isunak jarri zaizkie. Ez al da nahiko kontraesankorra itxaropentsu eta lankidetzarako prest agertzea, hain zuzen, horrela jokatzeko duen gobernu batekin eta alderdi batekin, EAJrekin alegia?

**EH Bildu, botere instituzionala eta kaleetako borroka. Zein da behar dugun alternatiba?**

Azken urteotan, EH Bilduk aurrerapauso ikusgarriak eman ditu hauteskundeetan eta instituzioetan. Une honetan, Hego Euskal Herriko udal indarrak indartsuena da, EAEko zinegotzien %40 (1040) eta Nafarroako zinegotzien %16 (341) baititu; horrez gain, 51 batzarkide ditu EAEn (%33), 27 eserleku Eusko Legebiltzarrean, 9 Nafarroakoan eta 6 Diputatuen Kongresuan. Baina botere instituzional hori guztia indargabe geratzen da logika kapitalista onartzen bada eta guztia kretinismo parlamentario eta instituzionalera mugatzen bada. Iraganen maiz ikusi izan dugu hori, besteak beste, PCerekin Trantsizioan edo Podemosekin duela hamar urte.

Arnaldo Otegik EAJri “herri” politikak egiteko dei egitea txundigarria da. Baina are txundigarriagoa da Katalunian gertatutakoaren ondoren, izan ere, Juntsen eskuinak eta ERCren sozialdemokraziak, ustezko batasun nazional horren alde egingez, eta patronalaren eta enpresari katalanen mesedea eskuratzeko moderazioa al-

darrikatuz, independentziaren eta Errepublikaren aldeko borroka irtenbiderik gabeko kalezulora eraman baitute. Kataluniak bizi izan zuen altxamenduaren behin behineko porrotak agerian uzten du zerk balio duen eta zerk ez. Kaleetako masen mobilizazioa eta ekintza zuzena izan ziren benetan ataka estu batean ezarri zituenak estatu aparatua, eskuin espainolista, monarkia eta 78ko erregimen osoa.

Ikasgai sakonak atera behar dira 2008ko krisi kapitalistaren ondoren sortutako “ezker berriaren” porrotetik, hala nola, Podemos, Die Linke, Syriza, Sanders edo Corbyn. Lehenik eta behin, kaleetan mobilizazio sendorik egin gabe, masa mugimendurik gabe, edozein posizio instituzional porrotera kondenatuta dagoela. Eta bigarrenik, kapitalismoaren logikarekin hausten ez bada, haren araei eta gaitz txikiaren politikari men egiten bazaie, gauzak ez aldatzeaz gain, azkenean atea irekitzen zaiela eskuin muturrari eta erreakzioari, ikusten ari garenez.

Hego Euskal Herrian azken urteotan etengabe mobilizatu gara errepresioaren eta estatu aparatu gero eta faxistagoaren aurka, 78ko erregimenaren eta espainolismo frankistaren aurka, baina baita EAJren eta patronalaren aurka ere. Adibide asko daude: Tubacex, Mercedes edo Michelin, Guggenheimeko garbitzaileak edo egoitzetako langileak, mugimendu feminista eta pentsiodunak, edo Gazan genozidioaren aurka egin berri diren mobilizazioak. Urkulluren gobernu bera, mobilizazioari esker, larri egon zen 2020ko urtarileko greba orokorraren ostean. Hori da gauzak aldatzeko bide bakarra, eta ez parlamentarioko negoziatioak eta maniobrak!

Otegik edo Otxandianok EAJrekin hautagaitza bateratuak aurkezteko egiten dituzten adierazpenek edo Osakidetza aurrekontuen eztabaidatik kanpo uzteak, hau da, jeltzaleak “politika abertzale eta ezkertiarak” egitera gonbidatzeko diskurtsoek ez dute zipitzik balio aldarrikapen bakar bat ere lortzeko.

Aurrez aurre ditugun mehatxuei, hala nola muturreko eskuinaren eta faxismoaren gorakadari, gerra inperialisteki, Gazako genozidioari eta herri palestinarren aurkako sarraskiari ezin zaie aurre egin “politika errealistekin”. Politika ausartak behar dira, jakina, iraultzaileak, eta hasteko planteatu behar dena da kapitalismo pean ezinezkoa dela gaitz horiekin amaitzea.

EH Bilduren norabideak, politika instituzionalak eta klase arteko kolaborazio politikek gero eta kimen gabeago uzten dituzte. Baina horrek, aldi berean, ideia eta antolakuntza iraultzaileko bidea irekitzen du. Egin beharreko bideak elkarriketa eskatzen du Ezker Abertzaleko milaka militantekin, zuzendaritzarekin oso kritikoa direnekin, ulertzen baitute, botoa eman arren, bide horretatik gauzak ez doazela ondo.

Komunista eta iraultzaile gisa aldarrikatzen garen erakundeek, hala nola Ezker Iraultzeak edo milaka gazte eta langile biltzen dituen GKS, alternatiba hori altxatzeko betebeharra dugu, sektarismo-rik eta ultimatumik gabe. Hori izan zen Leninen metodoa, eta horrela bereganatu zituzten boltxebikeek sobiet gehienak. Kaleetako mobilizazioarekin jarraitu behar da, langile mugimenduari lotu behar zaio, LAB eta ELA bezalako sindikatu borrokarietan parte hartu behar da, korronte komunistak eraikitzen, eta kapitalistak —izan EHkoak, espainiarrak edo europarrak— jomugan jarriko dituen benetako alternatiba komunista bat eraiki behar da. Horra hor aurrean dugun erronka.



# KATALUNIA

## 78ko erregimenaren aurka, ezker iraultzaile bat eraiki

### Esquerra Revolucionària Catalunya

Kataluniako burgesiak eta Espainiako kapital handiaren sektore zolienek pozarren hartu dute Salvador Illa Generalitateko presidente izendatu izana ERCren eta Comuns-Sumarren babesari esker. Kataluniako errepublikaren eta autodeterminazioaren aldeko mugimendua 78ko erregimenak inposatzen duen kalezuloan lurperatzeko helburuak aurrerapauso garrantzitsua eman du.

*El País* egunkariak argi deskribatu zuen ziklo politikoaren aldaketa horrekin klase agintariak zuen ikuspegia: “Kataluniak bere iraultza lurperatu du. “Proces”-aren errautsen gainean, PSC “ordenaren alderdi” berri gisa agertzen da (...) Zalantzas betetako aro berri bat ireki da, baina ziurtasun batekin: azken hamarkadako altxamendu independentistak azkena jo du”.

PSC-PSOE Generalitate itzultzeak eta ERCekin eta Juntsekin egindako itunek gailurrera eramanez ERC eta Juntseko kupulek 2017ko urriko masen altxamenduari eginiko traizioa. Buruzagi horiek aho betez hitz egiten zuten urriaren Ieko mandatuaz eta independentiaz. Bien bitartean, ordea, erregimen monarkikoarekin eta burgesia espainiarrarekin zubiak berrezartzen jardun zuten, burgesia horrekin klaseko lotura estuak baitituzte —bezerezi Juntsek— eta ez baitzuten pentsatu horiei inoiz uko egitea.

### Zer interes defendatzen dituzte Junts eta ERCko buruzagiek?

Abuztuaren 7ko paripea adibide ona da, eta nekez engaina dezakeen estrategia lotsagarria koroatzen du. Puigdemont sei minutuz Arc de Triomfen hitz egiten ari zela, Waterloora itzuli baino lehen, dena adostuta zegoen Mossoek, Kataluniako Gobernuak eta Espainiako Gobernuak beste alde batera begiratzeko, ihes egiteko eta Illaren inbestidura ez lausotzeko.

Politika horrek argi erakusten du zer nolako zinismoa duten oinarri independentisten sentimenduekin jolasteko eskrupulurik ez duten agintariek, hain zuzen, pujoismoa berreraikitzeke lanean ari direnean. Kataluniako burgesiaren mesederako neurriak PSOEekin edo PPrekin negoziatuz, langile migratzaileak esplotatzeko PPren eta Voxen neurri arrazistenak bere eginez, edo erregimen sionistarekin harremanak, armen salmenta eta negozioak mantentzea Parlamentuan bozkatuz, Juntsek erakutsi du Kataluniako burgesiaren tresna guztiz fidagarria dela. Eta, jakina, Estatuaeren errepresioa instrumentalizatu du botere-kuotak defendatzen jarraitzeko, patronalaren eta kapital katalanaren mesedetan.

Kontraesan berak markatu du ERCren ekintza politikoa. Bere oinarrien eta Gobernara eramanez boto-emaile ugarien asmoek talka egin dute buruzagien ikuskera sozialdemokrataren harresiaren aurka: behin eta berriz amore eman du, PSOEekin itunak egin ditu eta horrela

78ko erregimenarekin bakeak egitea bilatu du. Horrek azken urteotako krisi handienetako bat eragin du alderdian.

Zer esan Komunei buruz! Etxegabeteen aurkako borrokatik eta M-15etik sortutako indarra PSOEren morroi lotsagarri bihurtu da. Orain ezkerreko estaldura eman dio Illari.

### Amnistia, eskuin espainolistaren oldartzea eta PSOE-Sumar Gobernuaren politikak

Masen mugimendua presionatuta, Sanchezek, Illak eta Katalunian bake soziala inposatzeko PSOE aukera bakarizatutako ikusten duen burgesia espainiarraren sektoreak kontzesio politikoa egin behar izan zituzten. Hori da indultuen eta amnistia-legearen zioa, 155ari eman zioten babesa ahazmenara eramanez nahi izatearekin batera.

Kontzesio horiek, ez dezagun ahaztu, mobilizazioaren ondorio dira, hain zuzen, errepresio bortitzari aurre eginaz dena eman zuten borrokaren ondorio. Hala ere, 78ko erregimen kapitalista mantentzen den bitartean, borrokaren bidez lortzen ditugun kontzesio eta eskubide demokratiko guztiak arriskuan egongo dira.

Errealitatea egoskorra da: amnistiaren 74 onuradunetatik 54 ekintza errepresibo basatiengatik salatutako poliziak dira. Bestalde, Urriaren Iean manifestazioetan parte hartzeagatik, trafikoa eteteagatik edo hautetsontziak defendatzeagatik jazartutako ehunka ekintzailek epaiketaren edo ikerketaren zain jarraitzen dute. Okerrena

da kasu askotan horien akusazioak egin dituztenak PSOEk kontrolatzen duen Estatuko Fiskaltza Nagusia edo ERCko eta Juntseko Governak izan direla.

PSOE-Sumar gobernuaren amore emateak eta kapitalistei egiten dizkieten kontzesioak dira hain zuzen ofentsibak hauspotzen dituztenak PP-Vox, toga janzen duten borroak eta haizulo mediatikoa.

Gobernu sozialdemokratikoa, autodeterminazio eskubidea aitortzeari uko egiteaz gain, lege antidemokratiko eta erreazionarioak mantentzen ditu, hala nola Mozal Legea edo Atzerritartasun Legea. Halaber, bere politika ekonomiko eta sozialak izugarri aberasten ari dira higiezin, nekazaritzako elikagaien eta turismoaren negozioetako enpresari eta espekulazailer handiak.

Illak politika horien jarraitzaile leiala izango da. Bere kontseilarien zerrenda ikusi besterik ez dago: murrizketak eta pribatizazioak egiteagatik ospetsuak diren PSCko alkateak eta Kataluniako burgesia konbergentearen ordezkari zuzenak, besteak beste, Samper, Espadaler...

Kataluniako burgesiak eta Espainiako burgesiaren sektore erabakigarriek darabilten estrategia ez da berria. 155. artikularen eta errepresioaren bidez mugimendua zapaltzeko saiakerak porrot egin ondoren, PSCn oinarritu dira eta Junts eta ERCekin egindako itunak erabili dituzte amaiera emateko 2017ko eta 2019ko udazkenetako krisi iraultzaileek irekitako ziklo politikoari. Hain zuzen ere, 1970eko hamarkadako gorakada iraultzailea desaktibatzea eta 78ko erregimena inposatzea ahalbidetu zien taktika bera aukeratu dute: kontrairaultza forma demokratikoetan, Trantsizioa izendatu zutena alegia.

Garai hartan PSOEko eta, batez ere, PCEko buruzagien beharra izan bazuten, orain proces-eko alderdikoengana jo dute; eta horiekin batera, Komunaren eta CCOO eta UGT sindikatu etako burokraziarengana.

Sistema kapitalistaren krisiak eta zapalkuntza nazionalak bultzatuta, Katalunian masiboki ezkerreko biratu zuten milioika gaztek, langilek eta klase ertaineko sektore zabalek. 2017an, erreferendumak eta urriaren 3ko greba orokorrak elementu iraultzaileak zituen krisi politikoa ireki zuten eta prozesu berak 2019an beste mugari erabakigarri bat izan zuen, Auzitegi Gorenaren epaiaren ondoren. Horrek izua sortu zuen Espainiako eta Kataluniako burgesian ez ezik, baita Europako burgesietan ere.

Hori ulertzea funtsezkoa da. Kapitalisten planak garaitzeko bide bakarra Katalunian autodeterminazioaren eta askapen nazionalaren aldeko borroka programa sozialista batekin lotzea zen, klaseko independentzia politika defendatuz; horrela bakarrik libratu zatekeen mugimenduko zuzendaritza Juntseko eskuinaren eta ERCko sozialdemokraziaren oztopotik.

Nahi dugun errepublika katalana ezin du gidatu borrokatzen dugun oligarkia berak, traizioaren erantzulea denak hain zuzen. Langileen eta gazteen errepublika batek, herriarenak, krisi ekonomiko eta sozialaren erantzuleak desjabetu behar ditu, Caixabank edo Sabadell bezalako monopolio finantzarioetatik hasita, enpresa elektrikoak, Agbar, eta burgesia industrial handiarekin jarraituz.

78ko erregimena garaitzeko eta errepublika katalan sozialista bat konkistatzeko bide bakarra ezker iraultzaile bat eraikitzea da, komunismoaren programarekin jantzia.



# Macronen kolpea, Le Penen pareko lehen ministroa izendatuz Hau da hau sasi demokrazia!



**Victor Rodriguez**

Hara zer den demokrazia Frantziako Estatuan. Herri Fronte Berriaren hauteskunde garaipenak arriskuan jar baditzake klase agintariaren interesak eta kontrarreformak, horiek herriaren borondatearen aurka onartu ziren arren... Lasai, ez dago arazorik! Bozkatutakoa mespretxatzen da ozarki, eta modu zesaristan kapitalista handien gurarien araberako lehen ministro bat izendatzen da. Hori da irailaren 5ean Sean Macron presidentek egin zuena ezkerreari hauteskundeak lapurtzeko eta gobernu eskuin muturrari emateko; benetako Estatu kolpe instituzionala.

Michel Barnier Errepublikarren buruzagia gobernoburu izendatzeak erakusten du zein den Frantziako Estatuko erregi-

menaren aurpegia, izan ere, eskubide demokratikoak larriki ezbaian jartzen ditu, bere legea urratzen du eta joera bonapartista argia agertzen baitu. Begi bistan geratu da Macronek hauteskundeetan Le Penen aurka demagogikoki defendatu zuen "Fronte Errepublikanoa" pantomima hutsa zela.

Maniobra horren berri izan bezain laster, ehunka mila gazte eta langilek Frantziako Estatuko kaleak bete zituzten, ukabila erakusteko Macroni eta bere gobernu bazkide berria den Marie Le Peni.

## Lehen ministro ultra bat patronalaren eta eskuin muturraren neurria

Lehen ministro honen historia ultra kontserbadoreak ez du dudarik uzten. Homosexualitatea zigorgabetzearen aurka bozkatu zuen (Vichyren erregimenaren lege bati esker zigortuta zegoen eta 1981era arte indarrean egon zen), baita abortatzeko eskubidearen aurka ere.

Lehen ministro berria patronalaren nominan dagoen ultraliberal bat da, erretiroa hartzeko adina 65 urtera igotzearen alde bozkaten duena, eta bere jarrera ultraeskuindarretan moztzen ez dena, mugen kontrol are zorrotzagoa eskatuz. Horrek baieztatzen du dagoeneko argi baino argiago zegoena: Macronek askoz nahiago du Rassemblement Nationalarekin batera gobernu bat adostu, ezkerreko gobernu bat onartu baino.

Bankariekin eta enpresaburu handiekin murrizketen eta kontrarreformen agendarekin jarraituko duen gobernu bat behar dute, poliziaren errepresioa eta eskubide demokratikoen aurkako erasoak areagotuko dituen, eta bere horretan mantenduko duena gure anai-arreba etorkin kapitalismo frantsesaren krisiaren errudun bihurtzen dituen arrazismo instituzionala; eta baita ere, jakina, militarismoa eta

gerrazalekeria mantenduko duena, Frantziaren aintza ohia gurtzeko.

Herri Fronte Berriaren gobernu batek, masen presioak bultzatuta, lan eta erretireten kontrarreformak indargabetzea edo immigrazioaren aurkako lege berriak geldiaraztea planteatu lezake. Horrelako egoera bat oso apustu arrisksua litzateke eta klase menderatzaileak ezin du hori onartu. Horregatik, demokraziaren oinarriak gero eta gehiago kontraesanetan daude burgesiaren interes estrategikoekin, ez bakarrik Frantziako Estatuan, baita mundu osoan ere.

Marine Le Penek publikoki agurtu du jada Lehen Ministro berria bere jarrerara hurbildu izana, eta Marion Le Penek (Zemmourren Errekonkista alderdi are ultraeskuindaragoaren buruzagia dena) bere programa arrazista eta xenofobo guztia betetzera animatu du.

## Barnierren gobernuak klase borroka hauspotuko du

Inperialismo frantsesaren krisiaren ondorioz, gobernu berriak are gehiago erasotu beharko ditu lan eskubideak eta eskubide sozialak, kapitalista handien irabaziak loditzeko. Frantziako Estatuan eragingo duen klase borroka ikaragarria izango da. Agertoki honetan apusturik seguruenak Makronismoaren eta eskuin tradizionalaren ministroek osatutako gobernu izango da. Fronte Nazionalak babestuko du, eta biharko egunean ministroak ere sar ditzakete. Akaso ez al dago dagoeneko eskuin muturra EBko hainbat herrialdeetako Ministroen Kontseiluetan?

Hilabete eskasean, gobernu berriak zeregin nagusi bati egin beharko dio aurre: 2025eko aurrekontuak diseinatzea eta Bartzar Nazionalan aurkeztea. Defizit publikoaren aurreikuspenak oso ezkorak dira: 2024. urtea BPGren gaineko %5,6ko defizitarekin amaituko da, eta kopuru hori

%6,4ra igo daiteke datorren urtean. Tes-tuinguru horretan, zerbitzu publikoen aurkako erasoak eta murrizketak sakondu egingo dira.

Gabriel Attal buru zuen aurreko exekutiboak ildo horretako hainbat proiektu aurkeztu zituen, hala nola eskola publikoan 1.600 ikasgela ixtea eta 1.800 irakasle kaleratzea. Aurreikusten den beste eraso handietako bat langabezia sorospene da.

## Kaleetan Macron botatzeko mugimendu borrokalaria bultzatzea

Irailaren 7an, larunbata, 300.000 pertsona baino gehiago izan ziren Barnierren eta bere gobernu berriaren aurkako lehen mobilizazioetan. Frantziako Estatuko langile eta gazteek argi erakutsi dute ez daudela prest haien bizi baldintzak are gehiago hondoratzeko. Ondo asko dakite zer den ultraeskuina. Baina ezker erreformista ere bertatik bertara ezagutzen dute. "Ezker" horrek hauteskunde kanpainan aho betez aipatzen du "antifaxismoa", gero, ordea, prest egoten da atetik maniobrak egiteko eta Macroni eta sistemari arnasa emateko. PSko, PCFko eta Berdeetako buruzagiez ari gara.

Erretireten erreformaren aurkako mugimenduak, uztaileko mobilizazio antifaxistek eta estatu-kolpe instituzional honen aurkako manifestazio handiak jarraitu beharreko bidea markatu dute. FIK, sindikatu borrokarienek eta ikasleen erakundeek plan bat egin behar dute gobernu hau lehenbailehen eraisteko, oso ahula baita. Auzi politiko garrantzitsuak ez dira auzitegietan edo diskurtsoekin konpontzen, baizik eta masen mobilizazioarekin eta borroka antolatuekin.

Frantziako demokrazia burgesak krisi organikoa bizi du kapitalismoaren krisi materialaren ondorioz. Ezinezkoa da eskubide demokratikoak berreskuratzea, argi eta garbi borrokatu gabe horiek degradatzen eta ezabatzen dituen kausa, erregimen burgesaren gainbehera. Eta horrek sozialismoaren aldeko estrategia eskatzen du. Hori da bidea V. Errepublikaren altxoan bizi den monarkia presidentzialistari amaiera emateko, izan ere, Macronek egin duena bezalako estatu kolpeak ahalbidetzen baititu. Horrela bakarrik lor daiteke kontrarreforma eta murrizketa guztiekin amaitzea, erretiro adina eta lanaldia murriztea, hezkuntza eta osasun %100 publiko eta doakoak ezartzea, etxebizitza duin publiko eskuragarria izatea, lege errepre-sibo eta arrazista guztiak indargabetzea, lurralde kolonialetan independentzia ematea, eta politika gerrazaleak deuseztatzea; hain zuzen, burgesia frantsesak Zelenski-ren erregimen ultraeskuindarri eta Gazako genozidio sionistari ematen dion babesean oinarritzen den orgia militarista desegitea.

Frantziako Estatuko langile klaseak datozen hilabeteetan erakutsiko du gobernu berri hau, Macron eta eskuin muturra eraisteko indarra duela, eta kapitalismoarekin hausteko programa batekin lortuko du.

**Bisitatu  
gure webgunea**

[www.ezkeriraultzailea.net](http://www.ezkeriraultzailea.net)





# Hauteskundeak AEBn

## Trump eta Harris, krisian dagoen erregimenaren bi aurpegi

Ana Garcia

Ameriketako Estatu Batuetako hauteskunde presidentzialen atzera kontua abian da, eta muturreko polarizazio politiko eta sozialak zeharkatzen du. Batetik Donald Trumpen aurkako atentatu saiakerak bere jarraitzaileen fanatismo ultraeskuindarra indartu du. Bestetik, Biden hilotz politikoaren erretiratzeak bide man dio hautagai demokrata berria zuritzeako propagandak kanpaina izugarri bati.

### Muturreko polarizazioa gainbehera doan inperioan

Trump Etxe Zurira itzul liteke. New Yorkeko handikiak Alderdi Errepublikanoaren gaineko nagusitasun osoa ezarri du eta bere zigorgabetasuna bermatuta dago estatu aparatuko sektore erabakigarrien eta epailleen artean duen miresmen handia dela eta.

Biden eta Harrisen demokratek ez dute bete egindako promesa nagusi bakar bat ere. Ikasleen zorra kitzatzea, eskubide sindikalak hobetzea edo poliziaren arrazakeria eta basakeriarekin amaitzea, dena bertan behera geratu da. Ez dira gai izan emakumeen edo LGTBI komunitatearen indarrean zeuden eskubideak babesteko ere. Wall Streetentzako gobernatu dute eta ederki bete dizkie poltsikoak banku handiei, korporazio teknologikoei eta inbertsio funts harrapariei.

IBILBIDE HORREKIN, eta Trumpen itzulerak dakarren mehatxu larriaz gain, demokratek berriro garaipena eskuratzea zailtzan dago.

Baina polarizazio horren eta eskuin mutur trumpistaren gorakadaren atzean dagoen errealitatea kapitalismo estatu-batuarraren krisi sakona da, etengabe larriagotu dena. Zelenskiren erregimen erreazionariora bideratutako 150.000 milioi euroak, Netanyahuaren sionismo

genozida babesteko 30.000 milioi euroak, edo lau urtetan Wall Streeteko enpresa handiek eta industria militarrek jaso dituzten bilioi erdi dolarrak dirulaguntzen eta zerga arintzen bidez; hori guztia pare pare kontraesanean dago soldadak irensten dituen inflazioarekin, desberdintasun sozial geldiezinarekin eta langile klaseko eta erdi mailako sektore zabalen pobretzearekin.

Pribilegiarik gabeko etorkizunak izutzen dituen erdi mailako eta burgesia txikiko sektoreek, edo desindustrializazioak eta prekaritate endemikoak kolpatutako langile klase zuriko sektore atzeratuak, etxipenez eusten diote jada desagertuta dagoen amets amerikarrari. Trumpen bere demagogiarekin sektore horiek akuilatu besterik ez du egiten, harrotasun nazional zauritua aldarrikatuz, eta gaitz guztien errua immigrazioari, mugimendu feministari eta kaleetan mobilizatzen ari den ezker borrokalaria egotziz.

### Kamala Harris, gerraren gobernuaren presidenteordea

Bidenek eta bere gobernuak eta gobernadore eta alkate demokrata ugarik dozenaka mila gazte zapaldu zituzten herrialde osoko unibertsitateetako campusetan, eta horrek gaitzespina eragin du bere hauteskunde oinarriko sektore zabalen artean.

Hortik dator Kamala Harris bultzatzeako propaganda kanpaina masiboa; emakumea delako, duen arrazako jatorriagatik edo ustelkeriaren eta askatasunaren alde borrokatzen duen "fiskal justiziazale" gisa marraztu dioten irudiagatik. Baina ezinezkoa da AEBetako burgesiaren eta sionismo ultrarekin duen konpromisoa ezkatzea.

Hala adierazi zuen argi eta garbi demokratek batzarrean: "Utzi iezadazue hemen argi hitz egiten. Beti babestuko dut Israel bere burua defendatzeko duen es-

kubidea, eta bermatu egingo dut Israel bere burua defendatzeko gaitasuna izan dezala".

Kaliforniako Estatuko senatari ohia eta fiskal nagusi ohia den Kamala Harris esku betez babestu ditu Ukrainako gerra finantzatzeko pakete milioidunak, dagoeneko murriztuta dauden hezkuntzako edo osasuneko programa sozialen kontura. Baita Bidenek Mexikoko muga blindatzeko eskatutako aurrekontuaren igoeira ere. Harresi ospetsuaren eraikuntza aurrera egin du eta, ondorioz, atxilotze zentroak eta mugako agenteak biderkatu ditu. Halaber, fracking-arekin jarraitze konpromisoa ere hitzeman du.

Demokratek erakutsi dute ez direla alternatiba eskuin mutur trumpistaren aurrerapena geldiarazteko.

### Klase agintaria hauteskundearen aurrean

Kamala Harris aurkezteko kanpaina, hein batean, bere hautagaitzaren alde buruzagi errepublikanoek idatzi zuten gutun batean oinarritu da. Dokumentu horrek, usitez, frogatuko luke Trumpen aurkako oposizioa dagoela Alderdi Errepublikanoaren barruan, eta magnatea bertso askea dela AEBko klase agintarian.

Egia esan, klase kapitalista zatituta dago. Egia da burgesien pisua duten sektoreek nahiago dituztela demokratek egieko sozial eta politiko delikatu hau kudeatzeko. Baina beste sektore askok etxipenez ikusten dute AEBk atzerrian duten eraginaren galera, Txinaren aurrerapen eutsiezina, eta badakite eruririk gabe estutu behar dituztela herrialdeko langileak eta etorkinak, mozkinak eta boterea ziurtatu nahi badituzte. Horregatik Trumpen erabes boteretsuak jasotzen ditu, hala nola Elon Musk edo Stephen Schwartzman, Blackstoneko zuzendari nagusia.

Garrantzitsua da buruzagi errepublikanoak masen oinarri bat bereganatu duela eta nazio osoan antolatu eta mobilizatu duela. Kapitolioaren aurkako erasoak argi erakutsi zuen zabor sozial erreazionario eta amorratu hori noraino irits daitekeen.

### Zer alternatiba behar dugu Trumpen eta gerraren aurrean?

Demokratek aldeko hedabide burgesen inkestek ezkatu egiten dute buruz burukoak oso estu egoten jarraitzen duela. Alboratu egiten dute zer nolako alde dagoen, batetik, erabat mobilizaturik eta ofentsiban dagoen eskuin muturraren eta, bestetik, buruzagiek desmobilizatzen duten eta eskuak lotzen dizkien ezkeraren artean.

Askok emango diote botoa Kamala Harris, Trumpen aurrean alternatibarik ez dagoelako. Baina milioika gazte egongo dira, afroamerikarrak, arabiarrek, 2020an Bidenen garaipena ahalbidetu zuten langileak, oraingoan alderdi urdinari babesa emateari uko egingo diotenak.

Klaseko antolakuntza iraultzaile bat eratzeko potentziala eta politika sozialista defendatzeko espazioa heldu baino helduago dago. Gaur egun Alderdi Demokratik Bernie Sandersen, Alexandria Ocasio Cortezen edo DSAko beste buruzagi batzuen autoritatea erabiltzen badu aurregarritzeko eta kaleetan mugimendua blokeatzeko, lehenago autoritate hori konkistatu zutelako da, sozialismoaren ideiak hitzez aldarrikatuz. Orain, bertan behera utzi dituzte iraganeko diskurtsoak, klase agintariari eta burokrazia demokratari sutsuki men eginez.

Hauteskunde aurreikuspenak konplexuak eta zalantza gehiegi dira. Benetan erabakigarria hauteskunde hauen atzean ezkatzen dena da, baita horiek markatzen dituzten sakoneko joerak ere. Gazteria gogor altxatu da arrazakeriaren, matxismoaren eta genozidio sionistaren aurka, eta mugimendu sindikal berri batek aurre egiten die Google, Amazon edo automobilgintzako erraldoiei eta garaipenak lortzen ari da.

Eurak izango dira barrikadak altxatuko dituztenak erreazionario bidea ixteko. Hori egin ahal izateko, XXI. mendeko eskuin muturraren aurkako borrokan arma izango den tresna eraiki behar dugu: iraultzairen alderdia, sozialismoarena, langile estatubatuarrek kapitalaren diktadoreekin amaitu ahal izateko tresna.

# FAXISMOARI

EZ ZAIO EZTABAIDATZEN,

# BORROKATU EGITEN DA!



Antolatu zaitez!

**EZKER**  
**IRAULTZAILEA**  
ezkeriraultzailea.net



## EKITALDI PUBLIKOAK

- GASTEIZ** Asteazkena, Azaroak 13 - 18etan  
Rosa Luxemburg gunea (San Antonio Kalea, 32)
- ORERETA** Osteguna, Azaroak 14 - 18etan  
Sala Reina Aretoa (Xenpelar Kalea 3)
- BILBO** Ostirala, Azaroak 15 - 18etan  
La Bolsa (Pilota Kalea, 10)